

Gida didaktikoa

**OLATZ ETA UNAI
ESKOLAN III**

OLATZ ETA UNAI ESKOLAN III

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

HELBURUAK

Murgiltzeko ereduetan: egoera komunikatibo ahalik eta errealean bitartez, 2. hizkuntza menderatzen aurrera egitea.

Haur euskaldunen kasuan: egoera komunikatibo ahalik eta errealean bitartez, euskararen garapenean aurrera egitea.

EDUKIAK

Testu-motak: azalpena, narrazioa.

Hiztegia: erregistroak eta esapideak.

Jolasteko formulak/leloak ikastea.

Jolasen arauak eta prozedurak adostea eta azaltzea.

Ikaskideen arteko istiluak era egokian konpontzea.

JARDUERAK

NORI EMAN DIOZU?

EMAN ETA KENDU, APOAK HAMAR BEHATZAK KENDU HONDARTZAN IZAN NINTZEN

TALDE HANDIAN:

- Talde handian kapitulua gogoratu irakaslearen galderei esker.- Irakasleak kapituluari buruzko gezurrak kontatuko ditu eta hurrek egia esan beharko diote.
 - Kapitulua kontatu bukaeratik hasita, kausa egozpenak bereizteko.
 - Ikasi *Kanika polita dabil* abestia.
 - Ulertu eta azaldu jolasaren prozedura.
 - Parte hartu *Kanika polita dabil* jolasean euskaraz.
 - Parte hartu *Kanika polita dabil* jolasean bi puxtarrarekin (duzu/dituzu, dabil/dabiltza, daukazu/dauzkazu... bereiz eta erabil ditzaten).
 - Elkarrizketaren imitazioa. Banatu rolak: irakaslea eta ikasleak. Irakasleak margoak edo beste zerbait banatzeko eskatuko dio ikasleari. Irakasleak ez die guztiei banatuko, eta horiek gertatutakoa azaldu egin behar dute.
 - Haurrak korroan direla, batek baloia dauka eta eskuinean dagoenak esango dio baloia nori bota behar dion.
 - Banatu puxtarrak jolasteko: hurrek ahozko hizkuntza erabiliz eskatu eta aukeratu beharko dituzte, hau da, deskripzioa eginez: kolorearen eta tamainaren arabera.
 - Jolastu baino lehen, antolatu txandak eta zehaztu arauak: urrutiena heltzen denak irabaziko ditu puxtarrak.
- Lehendabizi, irakasleak proba bat egingo du, eta honakoak esango ditu: baietz oso urruti heldu..., irabaziko dut..., iufala!... Ondoren, hurrek egingo dute lehen proba, eta formula horiek errepikatuko dituzte.
- Materiala aldatuz, jolas bera egin daiteke. Horretarako uztaiak, pilotak... erabil daitezke.

- Kapitulutxo honen bukaeran, honelako elkarrizketa dator: Irakaslearen, Beñaten eta Olatzen rola banatu ondoren, Olatzek eta Beñatek irakasleari erantzun beharko diote.

Beñat.- Niri tokatzen zait.

(Jaurti egin du). Hara, irabazi egin dut! Ja, ja, ja, denak niretzat! Iufala, hau pila! (Beñat puxtarriak jasotzen ari da, eta Olatz haren ondoan dago. Olatzek eskua luzatu du, eta Beñati eman dion kanika hartu dio).

Beñat.- E, nirea da!

Olatz.- Ez, nik eman dizut eta!

Beñat.- Horrexegatik (Olatzi eskutik kendu dio kanika). (Ihes egin du). "Eman eta kendu, apoak hamar behatzak kendu"!

Olatz.- (Beñati jarraika). Emadazu! Beñat.- Ez, "Eman eta kendu, apoak hamar behatzak kendu"!(Irakaslearen atzean jarri da, leloa errepikatzen ari dela).

Beñat.- "Eman eta kendu, apoak hamar behatzak kendu"!

Alizia.- Zer gertatu da?

- Horrelakoak askotan gertatuko direnez gero, heldu adostasun batera, beti berdin jokatzeko: uzten denean eta ematen denean, ez da berdin. (Haurrek ez dute bereizten, eta "eman" aditza "utzi"ren esanahiarekin erabiltzen dute).

- Astelehenetan, askotan galdetzen zaie igandean non izan diren. Hobe da talde txikian egitea, ezen, hartara, irakasleak laguntzen ahal die, eta txandak ez dira hain luzeak.

- Jolasa: gezurra ala egia? Haur bakoitzak non izan zen eta zer ikusi zuen esan beharko du. Haurrek erantzungo diote: hori egia/gezurra da.

- Jolastu asmakizunetan. Lekuen argazkiak eta leku horietan izan daitezkeen animaliak edo gauzak aurrean dituztela, egin objektu edo animalien gaineko asmakizunak. Adib: basamortuan izaten da, bi konkorratu...

Gidoi literarioa

1. NORI EMAN DIOZU?

IZENBURUA: NORI EMAN DIOZU?

BEÑAT: Eta plaust!

LIERNI: Salto egin zuen?

BEÑAT: Bai. Potxingora sartu zen, eta den-dena busti zen.

UNAI: Eta gozoki guztiak neuk jan nituen. (BARRE)

OLATZ: (BARRE)

ALIZIA: Hau zorrozuta dago, hau ere bai. Bueno! Olatz, etorri hona.

OLATZ: Oraintxe, andereño.

ALIZIA: Orriak banatzen lagunduko didazu, marrazki bana egiteko?

OLATZ: Margoak ere bai?

ALIZIA: Ez, lehendabizi orriak.

OLATZ: Ondo, bai. / Emazkidazu, Alizia.

ALIZIA: Hartu itzazu zerorrek. Zenbat beharko dituzu?

OLATZ: Itxaron.

OLATZ: (AD LIB) Bat, bi,...

BEÑAT: Bat, bi,...

OLATZ: eta hiru.

LIERNI: (AD LIB)

OLATZ: Hiru! (AD LIB) Emazkidazu hiru, mesedez, andereño.
ALIZIA: Unai, zuk jar itzazu margoak erretiluetan, mesedez.
OLATZ: Emazkidazu hiru
ALIZIA: Hartu zerorrek. Hemen dituzu.
UNAI: (OFF) Banator, andereño!
OLATZ: Bat, bi, eta hiru!
ALIZIA: Hemen dauzkazu. Jarri erretiluetan!
BEÑAT: Eta nirea? Non dago nirea?
OLATZ: Hartu!
BEÑAT: (AD LIB)
ALIZIA: Mutil txintxo! (AD LIB) Zoaz.
UNAI: Olatz, eta ni zer? Niri ez didazu eman!
OLATZ: E?
UNAI: Ez didazula eman! Begira! Nik ez daukat! (OFF) Andereño, niri ez dit orririk eman!
ALIZIA: Zergatik ez diozu eman?
OLATZ: Bukatu egin zaizkidalako! (AD LIB)
UNAI: (AD LIB)
ALIZIA: (AD LIB) Ez dituzu ondo zenbatu?
OLATZ: Bai, begira. Bat, bi,...
BEÑAT: (AD LIB)
OLATZ: eta hiru.
LIERNI: (AD LIB)
OLATZ: (AD LIB) Hara ba, zera
UNAI: (AD LIB)
OLATZ: nola lehenago hemen ez zeunden, ez zaitut zenbatu!
ALIZIA: Bueno, har ezazu beste bat zeuretzat, azkar!
OLATZ: Oraintxe! (AD LIB)
BEÑAT: A zer kokoloa den! Tira, ekarri margoak! Jar itzazu hemen.
UNAI: (OFF) Hartu!
BEÑAT: (OFF) Ekarri ba! (AD LIB)
ALIZIA: Hasi marrazkiak egiten. Eta astiro eta polito egin, e?
OLATZ: Bai, andereño. (AD LIB) (KANTATU EDO) Txanogorritxo dut izena, amonaren etxera noa, amonatxo ikustera (OFF)
OLATZ: (AD LIB)
BEÑAT: E! Kontuz ibili! Begira zer egin duzun!
OLATZ: (AD LIB)
BEÑAT: Orain, jaso egin behar dituzu!
OLATZ: Nahi gabe izan da.
BEÑAT: A! Kontuz ibili ba!
UNAI: (AD LIB)
BEÑAT: Unai, utz iezazkidazu zeure margoak, mesedez.
UNAI: (OFF) Bai. Hartu! (ON)
OLATZ: Aizue, begira zer aurkitu dudan!
UNAI: (AD LIB)
LIERNI: (AD LIB) Ea, utzi ikusten!
BEÑAT: Non aurkitu duzu?
LIERNI: (OFF) Puxtarri bat!
UNAI: Ez zegoen besterik?
OLATZ: (AD LIB)
BEÑAT: (OFF) Ekarri!

OLATZ: (AD LIB)
BEÑAT: Emango didazu?
OLATZ: Ez, nirea da, nik aurkitu dut.
BEÑAT: Baina nik ere nahi dut!
OLATZ: Emadazu!
LIERNI: (BARRE)
BEÑAT: Nik ere nahi dut!
OLATZ: (OFF) Emadazu niri puxtarria.
BEÑAT: Ez, ez eta ez. (OFF) Orain nirea da.
BEÑAT: (BARRE)
OLATZ: Beñat, eman nire puxtarria!
BEÑAT: Ez dizut emango, ez da zurea. Zuk aurkitu egin duzu, ez zen zurea! Lurrean aurkitu (OFF) duzu.
OLATZ: (AD LIB) Emateko, Beñat! (AD LIB) (OFF) Ekarri! Nirea da!
BEÑAT: (OFF) Ez da zurea! Nirea da! (AD LIB)
OLATZ: (OFF) (ON) (AD LIB) Beñat, lapur hori! Eman, emateko! (OFF) (AD LIB)
LIERNI: (BARRE) Bota puxtarria, Beñat! Bota niri puxtarria!
ALIZIA: Eta orduan (AD LIB) Ene! Zer gertatzen da?
BEÑAT: (AD LIB) Lierni, hor doa! Hartu! (AD LIB)
LIERNI: (AD LIB) Nik daukat! Hartu dut, hartu dut. Nirea da.
UNAI: (AD LIB) Ai, ai, ai, ai! (AD LIB)
LIERNI: (AD LIB)
OLATZ: Lierni, emadazu, nirea da!
LIERNI: (AD LIB) Ez, ez, ez, ez, ez. Orain nik daukat! (AD LIB)
OLATZ: Lierni, eman! Ez izan gaiztoa! (NEGAR)
UNAI: (AD LIB)
LIERNI: (OFF) E? Ez kendu!
ALIZIA: Ai ene! Baina Zer gertatzen da hemen? E? Zer gertatzen da, umeok?
OLATZ: (ZOTINKA) Puxtarria kendu didatela!
ALIZIA: Zer? Beñat, egia da hori?
BEÑAT: Ez, andereño, ez da egia. Guk jolastu egin nahi genuen, baina Olatzek ez zigun utzi nahi.
ALIZIA: Hala ere, berea baldin bada, ezin diozue kendu!
LIERNI: Ez da berea!
OLATZ: (AD LIB) Bai horixe! Norena da bestela? (AD LIB)
LIERNI: Aurkitu egin du!
OLATZ: Bai, aurkitu egin dut, eta zer?
ALIZIA: Ederki, zer deritzozue denok puxtarriarekin jolasten bagara? Eta, bitartean, bururatuko zaigu zer egin puxtarriarekin; ados zaudete?
OLATZ: (AD LIB)
ALIZIA: Zer, katuak mihia jan dizu?
OLATZ: Baina puxtarria nire da, e?
ALIZIA: Tira, neska-mutilak, hasiko gara edo zer?
UNAI: Ea, Olatz, ez egon triste.
OLATZ: (ZOTINKA)
LIERNI: Ez da berea!
BEÑAT: Ez horixe! Lurrean aurkitu du.
LIERNI: Kokoloa halakoa!
BEÑAT: Bai. Mainati hutsa da!
LIERNI: Bai. / Bai, bai. Hori, hori.

BEÑAT: Badakizu zer egingo dugun? Puxtarria guri tokatzen zaigunean, berriro kenduko diogu. (BARRE) (OFF)

LIERNI: Eta ondo ezkutatuko dugu.

BEÑAT: (BARREZ) Negarrez hasiko da. (BARRE) (OFF)

ALIZIA: Umeak! Ai! Jesus! Eta bestea negarrar batean!

OLATZ: (ZOTINKA)

UNAI: Lasaitu, Olatz. Ez negarrik egin.

OLATZ: (OFF) (ZOTINKA) Nire puxtarria! Nirea da. Eta ez beste inorena!

BEÑAT: Oraingoz bai! Baina laster kenduko diogu.

LIERNI: (BARREZ)

ALIZIA: Tira, has gaitezen jolasten.

UNAI: Bai, bai.

BEÑAT: (OFF) Ea, hasi ba.

OLATZ: (OFF) Ongi. Puxtarri polit bat (ON) dabil saltoka eskutik eskura. Puxtarri polit bat dabil saltoka eskutik eskura. Nork ote du?

UNAI: Nork ote du, nork ote du?

LIERNI: Ea nik daukadan (AD LIB)

BEÑAT: Nik ez daukat.

ALIZIAN: Nire poltsikoan agian.

UNAI: Hemen ez, hemen ere ez

LIERNI: (AD LIB) Puxtarria, non da gure puxtarria?

UNAI: Puxtarria, nori eman diozu?

OLATZ: A, ezetz asmatu! (BARRE)

UNAI: Andereño, zuri eman dizu?

ALIZIA: Ez, niri ez dit eman.

UNAI: Beñat, zuri eman dizu?

BEÑAT: Ez, niri ere ez dit eman.

UNAI: Orduan, Lierniri eman diozu!

OLATZ: (BARRE)

BEÑAT: Jakina, neska delako!

LIERNI: Ez, niri ez dit eman.

ALIZIA: Olatz, orduan, nori eman diozu?

OLATZ: (BARRE)

ALIZIA: Olatz, ezin dugu asmatu. Non dago kanika?, nori eman diozu?

BEÑAT: (OFF) Bai. Nori, Olatz?

OLATZ: Ez dizuet emango. Nirea da eta nirea da, aditu duzue?

ALIZIA: Ez dizugu kendu nahi. Baina begira, hara non neure poltsikoan baditudan puxtarri gehiago! (BARRE)

LIERNI: (OFF) E? Zer dio?

BEÑAT: (OFF) Andereñoak puxtarri gehiago dauzka.

UNAI: (OFF) Hara! Egia da.

LIERNI: Begira zer polita den.

BEÑAT: Ea Bai, polita da. Baina nirea askoz ere politagoa.

UNAI: Nik ere badaukat.

OLATZ: Nirea erakusten badizut, zeurea erakutsiko didazu?

UNAI: Bai, jakina.

UNAI: Gureak politagoak dira. (BARRE)

OLATZ: Askoz ere politagoak! (BARRE)

ALIZIA: Tira ba, neska-mutilak, noiz hasiko gara ba jolasten?

BEÑAT: Eta gero kendu egingo dizkiegu.

LIERNI: Bai. Hori, hori!
BEÑAT: Horrela lau puxtarri izango ditugu guk.
UNAI: Ez dakit nori jarriko diodan.
OLATZ: Nik ere ez.
UNAI: Andereñoari agian.
OLATZ: Bai, bai.
ALIZIA: A, ume hauek! (AD LIB)
LIERNI: Nik Unairena hartuko dut eta zuk Olatzena.
BEÑAT: Ez, ez, ez, ez, ez, nik Unairena nahi dut.
ALIZIA: (OFF) Ea, has gaitezen behingoz!
OLATZ: Puxtarri polit bat dabil (OFF) saltoka
ALIZIA: (OFF) Ez, zu berriro ez, Olatz. Unairen txanda da orain.
UNAI: Puxtarri polit bat dabil saltoka eskutik eskura. Puxtarri polit bat dabil saltoka eskutik eskura.
BEÑAT: (AD LIB) (BARRE)
OLATZ: Nork ote du, nork ote du?
ALIZIA: Ea nik daukadan
LIERNI: (AD LIB)
OLATZ: Ea ba
UNAI: (AD LIB)
LIERNI: Puxtarria, gure puxtarria! Puxtarria, nori eman diozu?
BEÑAT: A, ezetz asmatu!
ALIZIA: Asmatu egin behar dugu? Ba
LIERNI: Andereño, zuri eman dizu?
ALIZIA: Ez, niri ez dit eman.
LIERNI: Olatz, zuri eman dizu? (AD LIB)
OLATZ: Ez, niri ere ez dit eman.
LIERNI: Orduan, Unairi eman diozu!
BEÑAT: (BARRE)
UNAI: Bai, niri eman dit. Orain, bi ditut! (OFF) (BARRE)
OLATZ: Ez du balio!
UNAI: Denak ez dira zuretzat!
OLATZ: (AD LIB)
LIERNI: Tranpati halakoa! (AD LIB)
BEÑAT: (BARRE)
OLATZ: (OFF) Eman niri
UNAI: (OFF) Zergatik? Niri eman dit!
LIERNI: (OFF) Tranpatia! Orain ikusiko duzu!
BEÑAT: (OFF) (BARRE)
ALIZIA: (AD LIB) Ai! Jesus! Ume hauekin ez dago zer eginik! Umeak beti ume! (OFF)

2. EMAN ETA KENDU, APOAK HAMAR BEHATZAK KENDU

IZENBURUA: Eman eta kendu, apoak hamar behatzak kendu.
ALIZIA: Ai ene, hau desastrea. Gero eta okerrago. (AD LIB) Tira, ea konpontzen dudana. // A, kaixo, neskato.
OLATZ: (AD LIB) Kaixo, andereño. (AD LIB)

ALIZIA: Hor daude besteak. Zoaz harekin jolastera.

OLATZ: Egun on, Beñat. Zer? Margotzen?

BEÑAT: Bai. Egun on, Olatz. (AD LIB)

LIERNI\UNAI: (BARRE) Egia da, bai.

Mundiala izan zen. (BARRE)

OLATZ: Egun on!

UNAI: (BARRE) Kaixo, Olatz. Mm, zer dakarzu hor?

OLATZ: La-lara-lara-la. Ez duzu ikusten? La-lara-lara-la. (KANTARI) Kristalezko puxtarriak, berde, urdin eta gorriak.

BEÑAT: (KANTARI) Mm Tara-ra-rara- e?

OLATZ: (OFF) (KANTARI) Kristalezko puxtarriak, Olatzek ekarriak.

BEÑAT: Hara! Zer du Olatzek ba?

OLATZ: (KANTARI)

BEÑAT: Kaixo, Olatz. Zertan zabilta horrekin kriskitin-kraskitin. Ee? Esan. (AD LIB)

Hara! Zenbat puxtarri!

OLATZ: Bai, politak dira, ezta?

BEÑAT: Emango al didazu bat, mesedez?

OLATZ: Ez dakit ba. Eta zuk zer emango didazu?

BEÑAT: (OFF) Mesedez! Horrela, elkarrekin ibiliko gara.

LIERNI: (AD LIB)

UNAI: Puxtarriak! Bai itsusiak! Eta zertarako eskolara ekarri? Nik etxean asko ditut.

Eta handiagoak! (AD LIB)

LIERNI: (AD LIB) Tira, nik bat daukat. Begira.

UNAI: (AD LIB)

BEÑAT: Mesedez, Olatz. (AD LIB)

OLATZ: Ezetz diotsut.

BEÑAT: Baina ez daukazu bakarrik jolasterik. Mesedez, Olatz, bat baino ez.

ALIZIA: Egun on. Zer moduz?

BEÑAT\OLATZ: Egun on, andereño.

ALIZIA: Zer? Nork eman dizkizu? Nork eman dizkizu puxtarriok?

OLATZ: Eman? Zera- ba nire lehengusuak eman dizkit.

BEÑAT: (OFF) Lehengusuak?

OLATZ: Pila bat dauka. Eta izebak esan dio batzuk niri emateko.

ALIZIA: Ongi ba. Baina ez dituzu lagunekin (OFF) partituko?

OLATZ: Hauek neureak dira baina!

BEÑAT: Nik bat bera ere ez daukat.

OLATZ: Eskatu zeure lehengusuari! (AD LIB)

BEÑAT: (AD LIB) Emadazu bat! Bat bakarra!

ALIZIA: Hau bai neskato zikoitza. (AD LIB)

OLATZ: Begira ze kolore politak! Begira nola distirutzen duen!

BEÑAT: Bi horiek berdin-berdinak dira. Emadazu horietako bat!

OLATZ: (AD LIB) Hau mutiko astuna! Burugorra (OFF) zara gero!

BEÑAT: Andereño, esaiozu bat emateko! Berak asko dauka eta! (AD LIB)

ALIZIA: Egia da, bai, baina bereak ditu.

BEÑAT: (OFF) E? Baina

ALIZIA: Nahiz eta asko izan, bereak ditu. Ni ezin naiz horretan sartu, Beñat.

BEÑAT: (OFF) Joo, andereño!

OLATZ: (OFF) Aibala!

ALIZIA: (OFF) Zer duzu orain?

BEÑAT: Ze-ze-zer?

OLATZ: Bai! Berdinak dira!
BEÑAT: Ikusten? Emadazu bat! Eman, mesedez!
OLATZ: Ederki ba, tori.
(A.B.)
BEÑAT: Ai, bai ondo! Kristalezko puxtarri ederra!
OLATZ: (AD LIB) Non dabil! Ez du poltsatik irten nahi! (BARRE Bizirik dago!
BEÑAT: Benetan eskertzen dizut. Oso eskuzabala zara. Oso ona nirekin!
OLATZ: Tori. Zer? Polita da, ezta?
BEÑAT: (AD LIB) Eskerrik asko. A ze polita den! (AD LIB) Aizue! Begira (OFF) zer daukadan!
(A.B.)
LIERNI\UNAI: (AD LIB)
UNAI: Ee? Zer? Zer daukazu?
LIERNI: (AD LIB)
BEÑAT: (OFF) Unai, Unai! Begira! Kristalezkoa da! Eta oso koloretsua! (BARRE)
Ikusten duzu? Begira!
LIERNI: (AD LIB) Unai! Egon hemen ba! Nora zoaz?
BEÑAT: Unai, begira! Olatzek puxtarri bat eman dit!
UNAI: (AD LIB) Baina zer zer da? Aa, puxtarria! (AD LIB)
LIERNI: (AD LIB) Nirea handiagoa da! (BARRE)
UNAI: Aiba! Egia da!
BEÑAT: E? Zer?! Eta zer? Ee Hau oso polita da! Benetan ederra!
UNAI: Bai, politagoa da, bai.
LIERNI: (OFF) Zenbat eta handiagoa, hobe! Horrekin ezin duzu jolastu!
BEÑAT: Nola ezetz? (NEGAR) Olatzek eman dit eta oso kolore politak ditu! (NEGAR)
BEÑAT: (NEGAR/AD LIB)
OLATZ: Ez negarrik egin, Beñat! Ez egin kasu Lierniri!
BEÑAT: (AD LIB) Ez, baina (AD LIB)
UNAI: (AD LIB) Aizu, Olatz zera. Puxtarri bat emango didazu?
OLATZ: Ee? Puxtarri bat diozu? Zuk badituzu etxean! Ez al (OFF) duzu hori esan?
UNAI: Ai, baina hemen ez! Ezin naiz zuekin jolasean ibili!
BEÑAT: Horixe! Bai! Jolasean ibiliko gara!
OLATZ: Bai, bai, zoragarri!
UNAI: Zer egingo ote dut nik puxtarririk gabe?
OLATZ: Tori bat.
UNAI: Aa! (OFF) Eskerrik asko, Olatz! Oso lagun ona zara!
LIERNI: A, neuk irabaziko dut!
LIERNI\UNAI\OLATZ\BEÑAT: (AD LIB)
Aurrera ba! Aupa! Nork bota behar du?
Hasi jaurtitzen!
Jarri puxtarriak dantzan!
OLATZ: Niri tokatzen zait! Ikusiko duzue!
LIERNI\UNAI\BEÑAT: (OFF) (AD LIB)
Begira! Begira!
Hor geldituko da!
OLATZ: (OFF) Aurrera, puxtarritxo! (ON) (AD LB) Zein urrun! (BARRE)
UNAI: Bai! Baina orain nire txanda da!
OLATZ: Tira, bota ba.
UNAI: Uztazu!
(A.B.)

LIERNI: (OFF) Olatzek ederki jaurti du, ezta?
BEÑAT: (OFF) Bai, oso trebea da.
LIERNI: (OFF) Ea Unaik orain zer moduz egiten duen.
UNAI: (AD LIB) Badoa, e? Adi egon! (OFF) Danba!
LIERNI\BEÑAT: (AD LIB)
BEÑAT: Atzerago geratu da!
LIERNI: Jaurtiketa eskasa.
UNAI: (AD LIB) Ai, ai! Ni bai traketsa!
OLATZ: Ufa! Irabazi egingo dut!
LIERNI: Nire txanda da! Baietz urrutirago heldu!
LIERNI: Ikusi, ikusi zein ondo egingo dudan.
OLATZ: Ai ama. Egon isilik eta jaurti behingoz. (AD LIB)
LIERNI: (AD LIB)
OLATZ: Ez da iritsiko, ez da iritsiko, ez da iritsiko
LIERNI: (OFF) Badoa! Aupa, puxtarritxo!
BEÑAT\UNAI: (AD LIB) Aiba! (AD LIB)
UNAI: Bikaina jaurtiketa! (OFF) (AD LIB)
BEÑAT: Hori hatz abila! (OFF) (AD LIB)
LIERNI: Hara! Zein urrun! (BARRE) Esan egin dizut! (BARRE)
OLATZ: Ai, ai, hau amorrua! (AD LIB)
LIERNI: Irabazi dizut! Puxtarrria eman behar didazu!
OLATZ: Ez! Oraindik ez dugu amaitu!
LIERNI: Baina irabazi egin dizut! (BARRE)
BEÑAT: Hori aurpegi gogorra!
UNAI: Harria baino gogorragoa!
BEÑAT: Orain niri tokatzen zait.
UNAI: Bai, zoaz.
BEÑAT: Badoa, e? Egon erne! Hemen dator-eta txapelduna!
UNAI: Aupa, Beñat! (OFF) Jaurti puxtarrria!
LIERNI: Ai! Ez ahal du ni baino urrunago jaurtiko!
OLATZ: (OFF) (AD LIB) (ON) Beñat! Beñat! Atera ezazu mahaitik! (AD LIB)
BEÑAT: (OFF) Eup! Hara, hara, hara, hara!
UNAI\LIERNI\OLATZ: (AD LIB) Uau! Urrun doa gero!
LIERNI: Uuu! Atzera, atzera, atzera!
UNAI: Aizu! Utzizu jaurtitzen! (AD LIB) Begira! Inork baino urrunago! Beñat irabazle!
OLATZ: (BARRE)
BEÑAT: Hara! Irabazi egin dut! (BARRE)
LIERNI: Ooo, kaka zaharra!
UNAI: Aupa Beñat! Ber da onena!
BEÑAT: Denak niretzat! Ufa! Hau puxtarrri pila!
OLATZ\UNAI: (AD LIB/BARRE)
UNAI: Ez kezkatu, ez da horrenbesterako.
LIERNI: Nik ederki bota dut ba.
OLATZ: (AD LIB)
BEÑAT: Argi dago! Neu irabazle! Iupi! Neuretzat denak! Ederrak dira gero.
OLATZ: Ai, nire puxtarrri polita. (AD LIB)
BEÑAT: E! Nirea da!
OLATZ: (OFF) Nik eman dizut baina!
BEÑAT: Horrexegatik ba! "Eman eta kendu, apoak hamar behatzak kendu!"

3. Hondartzan izan nintzen.

IZENBURUA: Hondartzan izan nintzen.
ALIZIA: Hona zure izena.
UNAI: (AD LIB)
BEÑAT\LIERNI: (AD LIB)
BEÑAT: Nire betaurrekoak ikusi dituzu?
LIERNI: A, ez! Erakutsi!
ALIZIA: Badakizu irakurtzen?
UNAI: E, nik ee
BEÑAT: Begira, gustatzen zaizkizu?
LIERNI: Tira (AD LIB)
BEÑAT: Txatxetakoak dira! (AD LIB)
LIERNI: (AD LIB/BARRE)
ALIZIA: Ba ikasi beharko duzu.
UNAI: (AD LIB) (OFF) Hemen dator Olatz.
ALIZIA: Adi egon- zer? E? A, hemen zaude!
OLATZ: Kaixo. (AD LIB)
ALIZIA: Egun on, Olatz.
OLATZ: Ezetz jakin zer ikusi nuen atzo!
UNAI: (OFF) (AD LIB) (ON) Zer ikusi zenuen?
LIERNI\BEÑAT: (AD LIB)
BEÑAT: Hara! Olatz etorri da! (AD LIB)
OLATZ: Hemen daukat. Bideo hau gure amak grabatu zuen.
ALIZIA: Polikiago, Olatz. Hasi berriro.
UNAI: Aiba! Bideoa? Andereño, ikusiko dugu?
ALIZIA: Tira, (OFF) lasai zaitezte.
BEÑAT: Noiz ikusiko dugu?
LIERNI: Marrazki bizidunak dira?
ALIZIA: (OFF) Lasai, lasai. (ON) Denok batera ez, mesedez. Eseri egingo gara, eta Olatzek poliki-poliki azalduko digu.
LIERNI: Bihar nik ekarriko dut. (AD LIB)
BEÑAT: Andereño, telebista ekarri behar duzu? (A.B.)
ALIZIA: Egon, egon! Lehendabizi hori zer den jakin behar dugu. Ea ba. Kontaiguzu zer ekarri duzun.
LIERNI\UNAI\BEÑAT: (OFF) (AD LIB)
BEÑAT: Polita da?
ALIZIA: Beñat! Ez duzu nirekin batera hitz egin behar! Nik bukatu arte ezin duzu hitz egin!
BEÑAT: Ez dakit noiz bukatuko duzun baina !
UNAI: Entzun, eta konturatuko zara! Nabaritzen zaio!
ALIZIA: (AD LIB)
ALIZIA: Beno, kontatuko diguzu?
OLATZ: Ez bazarete isiltzen, ez!
LIERNI: Bale! Iislduko gara!
OLATZ: Ongi ba.
UNAI: Bat, bi eta hiru! Denok ixo!

ALIZIA: (AD LIB) Unai, horrela ez diguzu laguntzen.

UNAI: Ai! Baina!

OLATZ\BEÑAT\LIERNI: (OFF) (BARRE)

ALIZIA: Ea, hasi, Olatz!

OLATZ: Ezetz jakin zer ikusi nuen atzo!

BEÑAT\LIERNI: (AD LIB)

ALIZIA: (AD LIB)

UNAI: Hegazkina!

BEÑAT: (OFF) Bai, horixe!

OLATZ: Ez.

LIERNI: Pailazoak!

OLATZ: (AD LIB)

BEÑAT: (OFF) Zera ba ee (ON) Zer? Film hori?

OLATZ: Ez, ez, ez! Ez duzue asmatuko!

UNAI: (AD LIB)

LIERNI\BEÑAT: (AD LIB)

BEÑAT: Kontatuko al diguzu behingoz?

(A.B.)

ALIZIA: Emaguzu ba pista bat. Esan, non izan zinen.

OLATZ: Hondartzan.

UNAI: (OFF) Hondartzan?

BEÑAT: Itsasontzia!

LIERNI: Badakit! Itsas izarra!

OLATZ: Ez. (BARRE) Ezin asmatu.

UNAI: A, parapentea! Nik bat ikusi nuen behin!

OLATZ: Ez duzue asmatu! Zer? Etsi nahi duzue? Esango al diet?

ALIZIA: Bai. Denak aspertzen hasiak daude eta.

OLATZ: Ba marrazoa ikusi nuen!

(A.B.)

ALIZIA: Ai! Marrazoa esan duzu!

OLATZ: Horixe!

BEÑAT: Hara! Harrigarria!

LIERNI: Ai ene! Marrazoa! Hau beldurra! Baina baina

UNAI: Benetan?

LIERNI: Hori ezin daiteke izan. Hemen ez dago horrelakorik!

UNAI\ALIZIA: (AD LIB)

OLATZ: Ba ikusi eta ukitu egin nuen.

ALIZIA: Non izan zinen? Akuarioan?

OLATZ: Ez!

ALIZIA: Non ba?

OLATZ: Hondartzan ikusi nuen!

UNAI: Ene! Marrazoa (OFF) hondartzan!

BEÑAT: (AD LIB)

LIERNI: (AD LIB) Zer dio honek? Hori gezurra da, hemen ez da marrazorik eta!

(A.B.)

UNAI: Akuarioan bai. Nik bertan ikusi ditut. Baina ezin dira ukitu.

OLATZ: Ikusiko duzue! Alizia, ipini zinta!

BEÑAT: Bai ba. Horixe ikusi nahi duguna.

LIERNI: Gezurti halakoa.

OLATZ: Orain ikusiko duzue. Adi zintari. (AD LIB)

BEÑAT\LIERNI\UNAI: (AD LIB) Tira, jarri ba.

OLATZ: Hondartzan ginela, bat-batean, arrain handi-handi bat zetorrela ikusi genuen.

LIERNI: Arrain handiak hondartzan! Bai zera!

UNAI: (OFF) Nolako arraina zen baina? Ikusi nahi (OFF) dugu.

BEÑAT: (OFF) (AD LIB) (ON) (AD LIB)

OLATZ: Hura susto handia! Baina errukarria hiltzorian zegoen.

BEÑAT\LIERNI\UNAI\ALIZIA: (OFF) (AD LIB)

(OFF) Hara! Bai handia!

(OFF) Sekulako da gero!

LIERNI: Errukarria! (OFF) (AD LIB)

UNAI: Hori pena! (AD LIB) (OFF) Ene! Ez dut inoiz honelakorik ikusi!

BEÑAT: Hau beldurra! Begira nolako hortzak dituen! (AD LIB)

ALIZIA: (AD LIB)

OLATZ: Ez zuen ezer egiten. Bertan hil egin zen.

BEÑAT: (AD LIB) Nik uste nuen gure hondartzetan ez zela marrazorik!

UNAI: (OFF) Hori ez da ba ale makala! Beldur ematen du! (ON) Zergatik hil zen?

LIERNI: Ba al da besterik?

UNAI: Erantzun niri baina!

OLATZ: Gure amak esaten du marrazoa zauriturik zegoela.

ALIZIA: Denak batera ez, mesedez. Txandaka hitz egin ezazue. Ea, Unai. Zer jakin nahi duzu?

UNAI: Ee, zera zergatik hil zen marrazoa?

OLATZ: Nik ez dakit. Baina gure amak esaten du zauriturik zegoela.

(A.B.)

ALIZIA: Orain zuk, Lierni.

LIERNI: E ba al da besterik?

ALIZIA: Ez dut uste. Nik dakidala, ez dira gure itsasoan bizi.

BEÑAT: Orain, nire txanda da. Hondartzatik hurbil ez, baina itsasoan urrutian bai.

LIERNI\UNAI: (AD LIB) Zure txanda, zure txanda! Bai zera!

LIERNI: Zer dio ergel honek?

LIERNI\UNAI: (BARRE)

OLATZ: Eta zuk nola dakizu?

BEÑAT: Ez dut bukatu! Olatz, nire txanda da! Esan dut itsasoan urrutian badirela, baina ez direla hona hurbiltzen.

ALIZIA: (AD LIB)

OLATZ: Eta nola dakizu?

BEÑAT: Telebistan ikusi dut.

UNAI: Telebistan ikusi duela dio tontolapikoak! (BARRE)

LIERNI: (BARRE)

ALIZIA: Ai, umeak, beti ziri-zirika! (AD LIB)

BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo. DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUEL BENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:
Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**
Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOA
EUSKARA ARDURADUNA:**
Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**
Mikel Val

SOINU BANDA:
Inhar Val

EDIZIOA:
Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:
Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:
Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:
Macarena Sobrón
Noemí Sobrón
Ana M^a Rodríguez

K2000 S.A.

Produktore exekutiboa:

Tomas Ugalde

Euskara arduraduna:

Josu Varela

Bikoizketa Zuzendaria:

Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:

Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audio teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzio laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2001

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-02-19**

LEGE GORDAILUA: : SS-007/04

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**